

# Getxoko Udala

Partaidetza Memoria



[2013ko Urria]

# Aurkibidea

1. Kultura antolatzaile berria kudeaketa berritzailea lortzeko 3
2. Administrazio gardena, kalitatezkoa eta hurbila 5
3. Kultura antolatzaile berria koordinazio-eredu berritzaileekin: Zeharkakotasuna 6
4. Herritarrak protagonistak: Partaidetza 8
5. Informazio-sistema eraginkorra eta dinamikoa 16
6. Kanpoaldera begiratzen duen Udala: Interdependentzia 18

## 1. Kultura antolatzaile berria kudeaketa berritzailea lortzeko

Getxok irmoki ekingo dio arazo gatazkatsuei irtenbide eraginkorrak eskaintzeko gaitasuna handitzeko erronkari. Horretarako, irtenbide berritzaileak emango ditu bere kudeaketa-prozesu eta -tresnetan, eta bere politikak azaltzean. Berritzeko eta ikasteko etengabeko esfortzua izango da, eta horrela, balio erantsia emango dio bere kudeaketa publikoari. Horri esker, auzokoen aurrean irekiagoa eta hurbilagoa izango da.

Bizikidetzaren hobetzearen, eta arazoak konpontzeko eta baliabide publikoak hobeto kudeatzeko biztanleen ezagutze eta gaitasunez baliatzearen aldeko apustua egiten duen beste kudeaketa mota bat da, eta harremanean, bitartekotzan eta egituratzean oinarrituta dago.

Harremanek garrantzi handia duten kultura antolatzaile berria, kudeaketa eraginkorragoa eta zuhurragoa lortzeko. Horrela, integrazioak, gardentasunak, aniztasunak, partaidetzak eta gizarte-kohesioak udalerririkintzailea, berritzailea, sortzailea, lehiakorra, adimenduna eta iraunkorra bihurtuko dute Getxoko udalerria.

### Legegintza plana

Legegintza planari esker, gardentasunez egin dezakegu gure kudeaketa, gastua kontrolatu eta proiektuak denboraz planifikatu. Horrez gain, herritarrek plan eta proiektuak finkatzen, jarraitzen eta ebaluatzen jarrai dezakete. Horrela, Sail bakoitzean zenbait proiektu eta ekimen zehaztu eta lehenetsi daitezke, eta haren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoen bidez, zenbaterako aurreratu den eta helburuak lor diren jakin daiteke.

Getxoko Udalaren **2012-2015 Legegintza Planak** harreman zuzenaren eta udalaren Foroetan, Abisu, Kexa eta Iradokizunen Zerbitzuan eta gogobetetasun-inkestetan garatutako lanaren emaitzen bidez eskuratzen du informazioa. Halaber, herritarren partaidetza ere kontuan hartzen du balioetan nahiz zeharkako ardatz estrategikoetan, izan ere, hurbiltasuna eta entzute aktiboa bultzatzea da bere xede nagusia, udalaren kudeaketa hobea lor dezan. Xede horietarako, bere helburu estrategikoa komunikabide berriak bultzatzea da, Erakundearen eta herritarren artean informazioa eta lankidetzaren lortzeko. Bestalde, garatu beharreko estrategia moduan, orain arte garatutako, eta Erakundeak epe labur/ertain/luzera egin ditzakeen herritarren partaidetzaren arloko ekimenei ordena eta koherentzia ematen dien herritarren partaidetzako esparru orokor bat garatzea proposatzen du.

ncluyeramateriaes bjetirsonas del municipioen las que se plantean cuestiones puntuales y reuniones personales con el alcalde y

### Gogobetetasunari buruzko iritzi-azterketak

Getxoko Udalak **gogobetetasunari buruzko zenbait iritzi-azterketa** egin ditu, herritarrek Udalak kudeatzen dituen zerbitzu publikoei buruz egindako balorazioa ezagutzeko. Horrela, udalaren kudeaketa hobe daiteke, beren beharretara egokitzeko aukera ematen dutelako. Horren zenbait adibide:

**Kalitate eta Informazio Sistemen Sailaren barruan gogobetetasun-inkestak** egiten ditu Kalitate unitateak Getxoko biztanleentzat oro har (ausaz aukeratzen dira). Hala nola udalaren kudeaketa, udalerriko bizi-kalitatea, nabarmen daitezkeen alderdiak, hobetu beharrekoak, administrazio-izapideak, arreta eta bestelakoak baloratzen dira. Horrez gain, **berariazko inkestak egiten ditu zerbitzu horien erabiltzaileen zerbitzu jakin batzuei buruz** (erabiltzaileen zerrendatik aukeratzen dira). Horrela, iritzi orokorrak eta zerbitzu horiek erabili dituztenen iritziak gurtzatzen dira.

**Abisu, Kexa eta Iradokizunen zerbitzua** du, eta horren bidez, udalaren eskumeneko edozein gairi buruzko abisu, kexa edo iradokizunak aurkez daitezke, horien ebazpenak edo erantzunak Tokiko Gobernu Batzordearen edo Alkatetzaren berariazko erabakirik ez badu eskatzen. Gaiak arazoaren arabera banatuta

daude, eta bakoitzak arduradun bat du, gaia dela eta dagozkion kexa edo iradokizunei erantzun diezaien. Zerbitzu hori erabiltzen duten biztanleen artean inkestak egiten dira, haien iritzia jasotzeko eta zer hobe daitekeen jakiteko.

**Turismo Sailak gogobetetasunari buruzko iritzi-azterketak** egiten ditu bi urtez behin, Turismo Bulegoak emandako zerbitzuaren erabiltzaileen eta bertako turismo-sektorearen gogobetetasun-maila jakiteko. Bestalde, **on line inkestak** egiten dizkie sistematikoki **Turismo Bulegoaren erreserba zentroa erabiltzen duten pertsoneri**, Bulegoak emandako zerbitzua eta zerbitzu horrekin lotutako enpresak berak egiten duen zerbitzua baloratzeko.

**Gazteria Zerbitzua inkestez** baliatzen da garatzen dituen jarduerak eta programak (esaterako, Udalekuak) ebaluatzeko, eta hobetzen lagun dezaketen iradokizunak kontuan hartzen ditu.

**Getxo Kirolak** erakundeak hainbat **inkesta** egiten ditu: urtero, bat, abonatuari; bi urtez behin, bat, herritarrei oro har; eskola-kirolarekin zerikusia duten jarduerari buruzko inkestak; ikastaroak amaitzen dituzten pertsoneri egindakoak; kirol-klubei kirol-ekitaldiei buruz egindakoak.

**Immigrazio eta Kultura arteko Zerbitzuak atzerriko immigrazioaren aurreko iritzi eta jarrerari buruzko azterketa** egin du.

**Getxoko Udal Egoitzak** urtero gogobetetasun-inkestak egiten dizkie egoiliarrei eta haien senideei. Inkesta horien emaitzak **senideekin eta egoiliarrekin egindako bileretan** eta **senideen eta egoiliarren kontsultaforoan** aurkezten ditu.

## Behatokiak

Udalaren kudeaketan etengabeko hobekuntza eta gardentasuna lortzen laguntzen duten estrategiak eta politikak finkatzeko beharrezkoa den informazioa ematen duten tresnak dira Behatokiak.

**Kalitate eta Informazio Sistemen Sailekoa den Kalitate Unitateak Hiri Behatoki** bat garatu du. Horren bidez, informazio kuantitatibo eta kualitatibo fidagarria jasotzen, aztertzen eta sortzen saiatzen da, Getxoko eta haren bilakaeraren ikuspegi zabala eman ahal izateko. Horrez gain, helburu hauek ere baditu: erabakiak hartzean informazioa aztertzea, etorkizuneko jarduerari-ildoak planifikatzeko, eta herritarrei eta udalerriaren garapenarekin zerikusia duten eragileei informazioa ikusten eta aztertzen laguntzea. Guztira 200 adierazle baino gehiago biltzen ditu, kategoriaka sailkatuta: ekonomia, lana, biztanleak, tokiko zerbitzuak, kultura, euskara, hirigintza eta abar, eta datu horiek denboran zehar izan duten bilakaera ikusteko aukera ematen du.

**Immigrazio eta Kultura arteko Zerbitzua Tokiko Immigrazio Behatokia** garatzen ari da Begirunearekin, Biztanleen Udal Erroldatik datorren informazioa kudeatzeko eta udaleko beste sail batzuekin, beste administrazio batzuekin edota datu estatistikoak sortzen dituzten agentziekin informazioa koordinatzeko eta partekatzeke. Helburua da etorkinen ezagutza sistematikoa, hedakorra eta ebolutiboa lortzea, etorkinen tokiko bizikidetzaren eta gizarteratze-politiketarako oinarri moduan balio izateko.

## 2. Administrazio gardena, kalitatezkoa eta hurbila

Gardentasuna, gizarteari eta interes-taldeei gobernuaren eta erakundeen jardueren berri emateko eta horiek argitzeko jarduera gisa hartuta, gobernu onak eskatzen duen jarduera demokratikoa da. Horri esker, erakundeen informazio sozial, politiko eta ekonomikoa eskura dezakete herritarrek.

**Nazioarteko Gardentasuna** GKEk urtero egiten duen **Udalen Gardentasun Indizearen (UGI)** arabera, Getxoko Udala Euskadiko gardenena da Bilboko Udalaren atzetik, eta hamargarrena Estatuko 110 udal garrantzitsuenen artean, 97,5 punturekin 100etik. Batez bestekoa 70,9 puntukoa da.

Udalen Gardentasun Indizea (UGI) herritarren eta gizartearen aurrean Udalen gardentasun-maila neurtzeko tresna da. Aplikatzen hasi zenetik (2010. urtean) Estatuko 110 udalik handienen gardentasuna ebaluatu zuten hiru urtetara, 80 adierazlek osatutako multzo baten azterketa zehatzean oinarrituz. Urtero egiten den ebaluazio horrek 2012. urtean izango du hurrengo edizioa, 2011. urtean etena izanda, udal hauteskudeen eta hauteskunde orokorren deialdiengatik.

Bestalde, Getxoko Udala, Euskadiko lehenengoa eta Estatuko hirugarrena izan zen **zilarrezko Q** lortzen. Horrez gain, **ISO ziurtagiriak** sartu ditu zenbait zerbitzutan (Udal Artxiboa eta Diruzaintza, Turismo Bulegoa, BAB, Udaltzaingoa eta abar). Aipatutakoaz gain, **Kalitate eta Informazio Sistemen saila** hautatu dute tokiko administrazioen “gobernu ona” egiaztatzeko erabilitako sistema berri bat aplikatzeko **esperientzia pilotu** batean parte hartzeko (**IWA4**).

Getxok **Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren** ziurtagiria lortu du 2012. urtean. Horrela, Euskadiko lehenengoa (Bilboko udalarekin batera) eta Estatuko bederatzigarrena izan da. Horretarako, Getxok, biztanle kopuruaren arabera, zenbait adierazle bete behar izan ditu, Udal gisa eta udalerrri gisa.

Getxo **2014. urteko Kirolaren Europako Hiria** ere izendatu dute, nazioartean goretsitako kirol-politikako eredu bati esker, osasunean, integrazioan, hezkuntzan eta errespetuan oinarritzen baita.

### 3. Kultura antolatzaile berria koordinazio-eredu berritzaileekin: Zeharkakotasuna

Getxoko Udala prest dago garatzeko bidean diren erronkei eta herritarren eskaerei aurre egiteko. Horretarako, antolamendu-kultura berri erabiliko du, harremanetan eta partekatutako ekintzetan oinarritzen diren koordinazio-eredu berritzaileak abian jar ditzan, horrela, erantzun egituratuagoak lortuko baititu.

Harremanen osagaia Gobernuaren eta udal administrazioaren lan-estrategiaren erdian kokatzen duen kultura-aldaketa. Aldaketa lan egiteko moduan, ekoizpena handitzeko, balio publikoko ondasunak sortzeko, eta prozesuetan eta emaitzetan eraginkortasuna hobetzeko.

#### Koordinazio-mekanismoak

Parte hartzeko eremuak eta tresnak bultzatzeko, udaleko politika publikoen kudeaketaz arduratzen diren teknikarien taldeen gutxieneko koordinazioa behar da. Horrela, zeharkakotasunak, informazioa aldi berean norabide desberdinetara joango dela bermatzen du, diziplina anitzeko proiektu bat egiteko helburuarekin, han parte hartzen dutenak ordezkatuta senti daitezzen.

Getxoko Udalak **Zilarrezko Q** ziurtagiria du, kudeaketan izandako kalitatearengatik, eta zenbait **Zerbitzu Gutun** ere baditu (Udal Artxiboa eta abar), Administrazioak, jasotako parametroak betetzeko duen konpromisoa egiaztatzen dutenak. Horrela, barneko kudeaketa hobetzen da eta zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonen ahalik eta gogobetetasunik handiena bilatzen da..

**Udaleko lan-talde** bat ere badago, eta hiru hilez behin biltzen da. Talde hori, zenbait sailtako teknikariek osatzen dute (Gazteria, Euskara, Immigrazioa, Aukera-berdintasuna, Prebentzioa, Getxo Kirolak, Enplegua, Garapenerako lankidetzeta eta Giza Baliabideak eta abar), Sail bakoitzak egindako lana ezagutzeko eta koordinatzeko, proiektu, ekimen eta lankidetzeta puntualak egiteko (hiriko udalekuak prestatzea eta antolatzea, gizarte-klausulak, Berdintasun Planaren barne jarraipena eta abar), gai interesgarriak etzabaidatzeko eta baterako proposamenak sustatzeko.

**Aukera Berdintasuna Saila** beste sail batzuekin aritzen da lankidetzan zenbait ekimenetan: Gazteria, Immigrazioa ((Emakume Immigranteen topaketak, Emakumeen arteko kultura arteko elkarrizketak), Getxolan (Etxeko lana), Getxo Kirolak (Berdintasun Batzordean parte hartzen du), Garapenerako lankidetzeta (Ahalduntze Eskolarekin zerikusia duten jarduerak), Hirigintza (Hiri Debekatuaren mapa), Gizarte Zerbitzuak eta abar.

**Ingurumen Sailak** Turismo eta Enplegu sailekin lan egin du bizikleten Sistema Automatikoa abian jartzen. Bestalde, Hirugarren Sektoreko laneratze-enpresa batekin ere lankidetzan ibili da Mugikortasun Iraunkorrerako Zentroa sortzen.

**Getxo Lan** erakundeak Udalaren zenbait sailekin batera garatzen ditu proiektuak eta ekimenak: Immigrazioa (etorkinen etxeko zerbitzuaren diagnostikoa), Kultura (Getxophoto, Getxoko Sirenoa), Kontratazioa (gizarte-klausulak), Hirigintza (CEDEMOS), Berdintasuna eta abar.

**Garapenerako Lankidetzako eta Giza Eskubideen Sailak** zeharka lan egiten du Getxolanekin (Bidezko merkataritzako vending makina, kontsumoari buruzko inkesta, bidezko merkataritzako kontsumoei buruzko galderak ere eginda), eta Erosketa Publiko Etikoaren taldean ere badago, Bidezko Merkataritzari buruzko udalerriko merkatarientzako ikastaro bat prestatzen. Kultur Etxearekin Liburu Erabiliaren Merkatuan parte hartzen du (Lankidetzeta sailarekin eta bildutako dirua zein GGKEk eta zein proiektuk eskuratuko duten erabakitzen duen GGKEen Lan Taldearekin); Getxo-Folken Gune Solidarioan laguntzen du, eta Munduko Paisaietan (liburutegien jardunaldiak) beste herrialde batzuetako errealitateak Getxora ekartzen ditu; Getxo-Kirolak erakundearekin Sahararen aldeko herri krosa antolatzen laguntzen du eta udako adingabeen harteetan Saharako eta Europako Ekialdeko adingabeak udal igerilekuetara sartzan errazteko laguntzen du.

**Getxo Kirolak** erakundeak **prozesuen araberako kudeaketa-sistema** bat ezarrita du, eta barneko koordinazioa du koordinazio-organo batekin. Halaber, koordinazio-bilerak egiten ditu prozesu operatibo

guztietarako. Enpresa Batzordea eta Langileen Biltzarra izateaz gain, **Gatazka Batzorde** bat (**Baketalde**) eta **Berdintasun Batzorde** bat ere baditu. Haietan gonbidatu gisa aritzen da Sail honetako teknikari arduraduna.

**Babes Zibileko sailak** lankidetzaharreman estua du bere eguneroko jardueran Komunikazio sailarekin, Arkitektura eta Ingeniaritzako langile arduradunekin eta Udaltzaingoarekin (koordinazio-zentro berean baitaude).

**Immigrazio eta Kultura artekotasun zerbitzuak** lan-planak egiten ditu Euskara sailarekin, Kultur Etxearekin, Getxolanekin, Berdintasun sailarekin eta beste sail batzuekin batera. Horrela, urtean zehar, udalerriko elkarteak batera aritzen dira jarduera koordinatuak garatzen.

## 4. Herritarrak protagonistak: Partaidetza.

Getxoko herritarrak protagonistak dira azken batean, eta udal erakundeak lortzen dituen lorpenen eta aurrerapenen hartzailak. Horrela, irtenbide eraginkorrak eman daitezke arazo kolektiboetarako, eta onarpena, konplizitatea eta hurbiltasuna sortzen dira. Berritzeko eta ikasteko etengabe egindako esfortzua da, eta horri esker, balio erantsia ematen zaio Getxoko biztanleen aurrean irekiagoa eta hurbilagoa izateko aukera ematen dion kudeaketa-ereduari.

Getxok pertsonentzat lan egiten du, izan ere, horiek gabe ez dago ez teknologiari ez eta estrategia berririk ere.

### Arloko kontseiluak

Aholku-organoak, partaidetzazkoak, organo aholku-emaileak, informazio-organoak eta udal kudeaketaren proposamena, besteak beste erakundeak, Getxoko irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak eta gizarte-sektoreak ordezkatuta dauden politiken esparruan. Udal politika jakinei lagundu eta aholkatzen diete. Horrez gain, gizarte zibilarekin lankidetzaz eta elkarrizketa-sareak sortzen eta garatzen laguntzen dute, herritarrek interes orokorrenekin konpromiso handiagoa izan dezaten eta egituratuago egon daitezten.

**Aukera Berdintasuna Sailak Berdintasun Batzordea** du. Administrazioak toki mailan berdintasun-politikak egiteko izan nahi duen partaidetzazko, aholku- eta kontsulta-organoa da. Batzorde horren xedea da udalerriko gizarte-eragileen partaidetza bideratu eta arautzen duen bidea eskaintzea, batik bat emakumeen elkarteena, berdintasun-politikak bultzatu eta jarrai ditzan. Batzorde hori, emakumeen elkarteek Berdintasun Foroan aurretik egindako lanaren bilakaera logikoa da. Haren araudia (2011ko martxoa eta apirila bitartean onartu zutena) talde guztien parte-hartzearen bidez egin zuten, izan ere, udalerriko Berdintasun Taldeak aztertu zuen, baina emakume eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen elkarteek parte hartzen dute. Bi hilez behin bilerak egiten dituzte eta udal erregistroan izena emandako emakumeen elkarte bakoitzeko, enpresetako eta saltokietako, sindikatuetak, hezkuntza arloko eta gazte elkarteetako ordezkariak, udaleko talde politikoez izendatutako zinegotzi batek, aldaketak, Berdintasun arloko zinegotziak eta Berdintasuneko teknikariak (idazkari moduan aritzen denak) osatzen dute.

**Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondare Sailak Plangintzako Aholku Batzordea** du. Kontsultarako tresna da eta tokiko erakundearekin lankidetzan aritzen da hirigintza-antolamenduko tresna nagusiak egiten eta onartzen. Bestalde, plangintzako berrikustetan oso garrantzitsua da egituraren antolamenduan eragiten dutenean. Batzordeak egindako proposamenak aintzat hartzen ditu Udalak, eta planaren aldaketetan barne hartzen ez badira horren arrazoia ematen du. Arautegi arautzailea du, eta Udaleko ordezkariak, Hirigintza, Hirigintza Planteamendu eta Ingurumen sailetakoko ordezkariak eta gazte elkarteetako auzokoen ordezkariak, ekologistak, emakumeak, ezgaituek, auzokoen elkarteetako ordezkariak, sindikatuak eta saltzaileak parte hartzen dute.

**Euskara zerbitzuak Euskararen Aholku Batzordea** du duela 3 hiru, eta udalerrian bizi diren 11 euskararen munduaren inguruko pertsonak osatzen dute, irakaskuntzatik, merkataritza eta bestelakoetatik datozenak. Hiru hilez behin biltzen dira, eta funtsezko helburu gisa hauek ditu: Udalari Euskararen Normalizaziorako Plan Orokorra egokitzen laguntzea, urteko kudeaketa-planaren eta proiektuen jarraipena egitea, proposamenak egitea eta iritzia ematea, laguntza ekonomikoen deialdien oinarri buruzko iradokizunak egitea, eta normalizazio-lanekin zerikusia duten gaiak aztertzea. Horrez gain, berariazko lan-taldeak ere baditu ikastetxeekin, eskalategiekin, elkarteekin, gurasoen elkarteekin eta abar.

### Sektore foroak

Gai jakin batzuei buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko eremuak dira. Beren helburu nagusia ikuspegi estrategiko bat sortzen laguntzea eta udaleko gai jakin baten plangintza hobetzen laguntzea da. Parte hartzeko lan-egitura egonkorra dira, eta oso sektore jakinek beren ikuspegiak eta tresnak ematen dituzte udalerriarren gaitasunak hobetzeko.



**Garapenerako Lankidetzeta eta Giza Baliabideen sailak Lankidetzarako Lan Taldea du.** Talde hori, 2004. urtean sortu zen eta 12 GKEk parte hartzen dute (gehieneko egoitza soziala Getxon dago), Garapenerako Lankidetzarekin zerikusia duten gizarte-sektoreen sentsibilizazioa eta inplikazioa bultzatzearekin, ekintzen koordinazioarekin, Lankidetzeta Sailaren esku-hartzeko behar eta lehenetsuen buruzko aholkatzearekin, txostenak iradokizunak, azterketak eta proposamenak egitearekin eta garatutako ekimenen arteko koordinazio-bidearekin lotutako gaiez aritzeko. Berezko arautegia du eta urtero 4 eta 6 bilera artean egiten ditu, informazio trukatzeko (mezu elektronikoen bidez edota zuzenean), lan-zirriborroak aldatzeko eta ekarpenak nahiz iradokizunak etengabe jasotzeko.

Bestalde, **Bidezko Merkataritzako Talde Eragile** bat du. Talde horretan, GGKEk, Gazte elkarteek, Berdintasunerako taldeek, Kirol elkarteek eta Etorikinen elkarteek parte hartzen dute. Urtero 5 bilera inguru egiten dituzte.

Hamazazpi elkarteek, bi boluntario eta Udaleko teknikariek osatutako **Gizarte-laneko Boluntarioen Elkarte Talde** bat dago. Zuzendaritza Taldea hilean behin biltzen da; lan-taldeak, gutxienez, hamabost egunean behin, eta jardueraren arabera, astero, eta ezohiko biltzarra, gutxienez, urtean bitan. Boluntarioen erakundearen sarea finkatzea eta sustatzea, boluntarioen eta haien erakundearen lana indartzea, eta boluntarioen garrantziaren aurrean sentikortzea dute helburu.

**Aukera Berdintasuneko Sailak Berdintasun Foroa** du (1992. urtean sortutakoa). Foro horretan, udalerriko emakumeen elkarte guztiek parte hartzen dute, eta garatutako jarduerari buruzko informazioa (jardueren memoria) ematen zaie. Horrez gain, urte hasieran, jardueren programa jakinarazten zaie; urtero, Berdintasun Planaren betetze mailaren jarraipena egiten dute; programa egiteko eta kanpainetako jarduerak prestatzeko gonbidatzen zaie (azaroaren 25, martxoaren 8 eta abar). Bestalde, **Foro ireki** bat sortu zuten, II. Berdintasun Planaren esparruen gainean lan egiteko, edukiei buruzko proposamenak eginez eta betetze-maila ebaluatuz.

**Ingurumen Sailak Ingurumeneko Tokiko Foroa** sortu zuen duela 8 urte. Gutxienez, urtean bitan batzen dira, araututa dago eta enpresa-egiturako, ekologisten elkarteetako, gizarte-, kultura- eta kirol-elkarteetako, emakumeen elkarteetako eta ikastetxeetako ordezkariak, unibertsitateko langileak eta Ingurumen arloko pertsona ospetsuek (Fegevol, Ekologistak Martxan, Basozaleak, Eskuz-esku, kirol-elkarteek, Eskoña Agenda 21, etab.), Alkateak, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotziak eta ingurumeneko teknikariak parte hartzen dute. Udalaren kudeaketan ingurumena babesteko eta iraunkortasuneko irizpideak eta herritarren proposamenak aintzat hartzea du helburu, ingurumenaren, natura-ingurunearen eta hirigintzaren inguruko udal eskumenak erabiltzean eta betetzean.

Halaber, Gero eta San Nikolas ikastolek, Juan Bautista Zabala, Larrañazubi eta Zubileta ikastetxe publikoek, Aixerrota, Fadura, Julio Caro Baroja eta Romoko institutuak eta Azkorri eta Santísima Trinidad ikastetxeek osatutako **Eskola Agenda 21 Foroa** ere bada. Hilero biltzen dira eta beren helburua da ingurumenarekiko harremanak hobetzea; akordioak egitea erdigunean eta udalerrian bizimodu iraunkorrago izateko; eskola-elkarteko eragileen artean koordinazio-mekanismoak indartzea; ingurumen- eta gizarte-arloko aukerak identifikatzea, aztertzea eta proposatzea.

**Gazte Zerbitzuak Gazte Foro** bat sortu zuen 2005. urtean, eta hasiera batean aisialdiko elkarteek parte hartzen dute. Geroago **Gazteshowa** egin zuten, eta Getxoko 17 gazte elkarteek eta taldeek parte hartu zuten. Beren helburuak Getxoko biztanleei gure udalerriko elkarte-egituraren aberastasuna eta jarduerak ezagutaraztea izan zen, Getxoko auzokoek bertako elkarteetan parte har dezaten, elkarrekiko ezagutza eta Getxon gazteen arloan lan egiten duten elkarten arteko sareko lana bultzatzea, eta udalerriko gazteengan eta elkarteetan eragina duten gaien inguruko eztabaidak egitea eta proposamenak jasotzea.

Hortik aurrera, topaketan honetan sartu nahi izan ziren gazte elkarteek osatuta egotera pasa zen (12 guztira). Hiru hilez behin biltzen dira. Bilera horietan, Sailak garatutako ekimenak aurkezten dira, parte hartzen duten elkarten ekarpenekin aldatzeko eta aberasteko. Topatzeko, elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta sinergiak sortzeko lekua da, eta horri esker, batera egindako eta koordinatutako oso bestelako ekimenak sortu dira.

**Merkataritza Sailak Merkataritza Mahaia** du. Udala eta udalerriko merkataritza eta ostalaritza sektoreko ordezkariak topatzeko foro moduan sortu zuten, eta merkatariek, merkatarien elkarteek, Ekonomia Sustapen Saileko ordezkari politikoei eta Getxolaneko teknikariek parte hartzen dute. Merkataritza- eta ostalaritza-jarduerari bultzatzen duten ekintzak koordinatzea eta partekatzea, sektorearekin

lotutako arazoak lantzea eta eztabaidatzea, eta batera garatuko dituzten estrategiak definitzea dute helburu, horiek sustatzeko eta dinamizatzeko. Lan-taldeak hilerok biltzen dira, eta Mahaia urtean sei alditan.

**Turismo Sailak Turismo Mahaia** du 2010eko azarotik. Hasiera batean helmugan Turismo Kalitatearen Plana ezartzen laguntzeko sortu zen. Gutxienez urtean bitan biltzen da, eta sektoreko enpresek, hoteletako, ostaluetako, baliabideen, taxilarien, bela-enpresetako, bidaiia-agentzietako, taberna, kafetegi eta jatetxeetako ordezkariak, Alkateak, Turismoko zinegotziak eta Turismo Unitateko teknikariak parte hartzen dute. Beren helburuak hauek dira: Getxoko turismo-sektorearen garapenean eragina duten jarduerak proposatzea, eztabaidatzea eta haien jarraipena egitea eta helmugako Turismo Kalitaterako Sistema Integralaren ezarpena koordinatzea. Horren bidez, turismoa garatzeko plan orokorrak eta helmugako kontzientzia sor daitezke.

**Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondare Sailak Uholdeen Batzorde Berezia** sortu zuen. Udaleko talde politiko guztien ordezkariak, kaltetuen elkarteetako ordezkariak eta URA Uraren Euskal Agentziako ordezkariak osatzeko dute. URA Agentzia da, hain zuzen, aipatutako proiektuan eskumena duen organoa. **HAPO berrikusteko Batzorde Berezi** bat sortzea ere aurreikusita du.

**Immigrazio eta Kultura arteko Zerbitzuak** aldizka bilerak egiten ditu (urtero 10-12 bilera) **Getxoko Etorकिन Plataformarekin**. Plataforma hori, 10 elkarteak osatzen dute, eta Ellacuría Fundazioaren laguntzaz sortu zen, etorkinen zenbait elkarteak parte hartu zuten elkarteak indartzeko programa batean. Helburu hauek ditu: informazio-trukea, talde-lana eta jardueren koordinazioa bideratzea; atzerriko biztanleen gizarteratzea erraztea; etorkinek Udalaren aurrean duten egoeraren solaskidea bihurtzea, eta beste partaidetza-leku batzuekin ere solaskidea izatea; bizikidetzeta eta sentsibilizazioaren inguruko programak eta neurriak proposatzea, eta horiek aztertzea eta gogoeta egitea.

Sentsibilizazio-ibilbideetan sartu dute, eta urtean zehar antolatzen diren ekitaldien barruan jarduerak kudeatzeko eta antolatzeko aukera eman zaie (Etorकिन Nazioarteko Eguna, Arraza-diskriminazioaren kontrako Nazioarteko Eguna, Folk Jaialdiaren kultura arteko karpa, eta abar).

**Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Sailak Jai Batzordeak** ditu. Gizarte-eragileen ordezkariak osatuta daude eta auzoetako jaien antolaketa eta kudeaketa parte hartzen dute Udalaren laguntzaz, jardueretarako diru-laguntzak emateaz gain, eremuak eta azpiegiturak ere uzten dituenak.

**Euskara Zerbitzuak Ikasgehi Foroa** sortu du. Foro hori, hiru hilez behin biltzen da eta Getxoko Berritzeguneko euskara-teknikariak, Udaleko Euskara eta Hezkuntza sailtako teknikariak, euskararen aldeko elkarteak, ikastetxeetako eta guraso elkarteetako ordezkariak osatzen dute. Eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabiltzea bultzatzea, euskara normalizatzeko urratsak ematea, informazioa trukitzea eta irakaskuntza elebidunaren inguruko gogoeta egitea dira bere helburuak. Antzeko maiztasunarekin eta modu informalean udalerriko euskaltegiekin biltzen da.

**Getxoko Udal Egoitzak egoiliarren eta senideen kontsulta foroa** du. Bere helburua da bezeroarengandik hurbilago egotea, ematen duen zerbitzua hobetzeko, eta egoiliarrek eta senideek egoitzaren bizitzan parte har dezaten sustatzeko. Urtean hirutan biltzen dira, eta solairu bakoitzeko senideek eta solairu bakoitzeko egoiliar batek, Udal Egoitzaren lehendakariak, Udal Egoitzaren gerenteak, Laguntza Buruak eta Gizarte Langileak osatzen dute.

## Partaidetza duten planak, programak eta proiektuak

Partaidetza duten planek eta proiektuek udal kudeaketaren berariazko gaien garapen onerako beharrezkoak diren helburuak eta baliabideak ezartzen dituzte. Horrela, beren ikuspegia ematen dute eta ekarpenak egiteko dituzten sektoreek ere parte hartzen dute. Tresna konplexuak dira, lan handia eskatzen dutenak, baina politika jakinen epe luzeagorako ikuspegia izateko aukera ematen dute, gizarte-sektoreen, sektore politiko edota ekonomikoen babesarekin.

Partaidetza-planek arazo jakinei buruzko ikuspegi integralagoa lortzen laguntzen dute, proposamenak, ideiak eta hobetzeko helburuak ekar ditzaketen gizarteko eta erakundeetako sektoreak barne hartzearen aldeko apustua eginez.

**Aukera Berdintasun Sailak Ahalduntzeko Eskolaren** jarduerak kudeatu eta koordinatzen ditu (2003. urtean sortutakoa), eta urritik maiatzera bitartean egiten diren jardueren egutegi zabala eskaintzen du. Ikasleekin bi informazio-bilera egiten ditu; ikasturtearen erdian lan-jardunaldi bat egiten du eta ikasturtearen amaieran, amaiera-jardunaldi bat. Horrez gain, **Kultura arteko elkarrizketak** antolatzen ditu. Irekiak dira, eta ikasleek finkatutako programa bat dute, lan-taldeen dinamikak barne hartzen dituen. Hilero egiten dira. **Berdintasun Planak** eta **Hiri Debekatuaren Mapa** herritarren partaidetzarako talde irekin egin dira.

**Getxolanek Getxo Meeting** sortu du, Getxoko enpresak topatzeko eta harremanetan jartzeko gunea dena. Harremanetan jartzeko lekuak, negozio-proposamenak eta merkataritza-loturak sortzeko helburuarekin sortu zen. Halaber, Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatutako Europako proiektu baten esparruan zenbait **sareko lan-esparru** garatu dira. Horietako bat, **laneratzea hobetzeko** lan egiten du, eta prestakuntzarekin eta enpleguarekin zerikusia duten jardueretan udalerrian lan egiten duten erakundeek parte hartu dute (INEM, UGT enplegurako orientazio-zerbitzuen arduradun gisa, CIP, LHko zentroak, elkarteak eta abar). Beste talde batek enpleguaren eta **immigrazioaren** arloak landu zituen, batera eta modu koordinatuan, eta Udaleko Immigrazio Sailak eta Sail horrekin enpleguaren gaian lan egiten duten eragileek parte hartu zuten. Antzeko izaera duten beste talde batek enplegua eta **berdintasuna** Aukera Berdintasun Sailarekin lotu zituen, eta azken talde batek, **laneratzeo enpresekin** lan egin zuen (gizarte-enplegua). Udalerrian lan egiten du, eta bere lanari esker, Udalaren eta enpresa horien artean bi aldeko hitzarmenak egin dira.

**Ingurumen Sailarekin CEDEMOS proiektua** aurrera eraman du, beste Sail batzuen laguntzaz. Estatuan aitzindaria den eta Getxoko Udalaren eta Emaus, mugikortasunaren eta gizarteratzearen sektorean liderra den irabazi-asmorik gabeko erakundearen arteko lankidetzak publiko eta pribatuaren laguntzaz sortu den mugikortasun iraunkorreko ekimena da. Horrez gain, ostalaritza, aisialdi eta enplegu proiektu batean ere parte hartu du **Getxo Kirolak-ekin**, Faturako igerilekuetan dauden ostalaritzako eremuetan egiteko.

**Getxo Kirolak** erakundeak partaidetza-prozesu bat egin zuen **2011-2015 Plan Estrategikoa** egiteko prozesuaren barruan.

**Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondare Sailak Getxo Auzo Auzo Barrio a Barrio Programa** egin du, Udalak auzoen eguneroko errealitatearen berri izan dezan. Horretarako, Alkatea eta Gobernu Taldeak harreman zuzena izango dute auzokoekin, haien beharrak, asmoak, balorazioak eta proposamenak ezagutu ditzaten. Auzoetan udalaren kudeaketa orientatzea eta hobetzea da helburua. Auzoa erabakita, informazio-liburuxka bat banatzen da, auzoan zer hobe daitekeen galdetuz, eta hamar egunez postontzi bat jartzen dute beren iradokizunak egiteko. Geroago, gobernu-taldea eta alkatea auzo horretara joaten dira auzokoei zuzenean erantzuteko.

Ekimen mota horiek auzo hauetan garatu ziren: **Algorta, Areeta, Villamonte, Neguri, Romo, Santa Ana, Sarrikobaso, Iturribide, Puerto Orduña eta Unbe, Los Puentes eta Oikosa, Aldapa eta Zubilleta eta Antiguo Golf.**

Duela gutxi, Sail berak, **HAPO berrikusteko herritarren partaidetza-prozesu** bat abian jarri da. Horretarako, 73 pertsonako lan-talde bat sortu dute, talde eta elkarteetako pertsonen eta auzoko partikularrez osatuta dagoena. Lan-taldea gizartearen arlo orokorraren ordezkaria izateko sortu da, eta bi sexu-etako eta adin-tarte desberdinetako ordezkari-tza proportzional bat bilatzen saiatu dira. Talde guztiek modu orekatuan parte hartzea da helburua. Programa honek publikoarentzako **prestakuntza-hitzaldiak** ere prestatu zituen, eta bakoitzean 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten.

**Immigrazio eta Kultura arteko zerbitzuak elkarteak indartzeko programa** bat garatzen du **Ellacuría Fundazioarekin**. Getxoko Kirolak elkartearekin eta Gizarte Zerbitzuekin **Gure Aisia programa** egin du, etorkinei kirol esparruak erabiltzean laguntzeko. Prozesu hori 2008. urtean hasi zen, eta Bilboko eta Durangoko nahiz Eusko Jaurlaritzako BILTZEN Integrazio eta Kultura Arteko Bizikidetzak Zerbitzuaren esperientziekin koordinatu da.

Urriari **Identibuz Getxo** proiektua egin zuten. Ikus-entzunezko sortzeko partaidetza-erperientzia bat da, udalerriko pertsonen eta taldeen parte har dezaten. Bertako eta atzerriko pertsonen parte hartuko duten lan-prozesu baten bidez udalerriko kultura-aniztasuna erakustea da helburua.

Horrez gain, urte honetan zehar **programa pilotu** bat bultzatuko dute, arrazismoa eta xenofobia sustatzen duten estereotipoekin amaitzeko, Bartzelonan abian jarritako zurrumurruen kontrako estrategian oinarrituz. Horretarako, auzokoez osatutako taldeak sortuko dira, etorkinen eta kultura-aniztasunaren inguruan dauden estereotipo, topiko eta zurrumuru faltsu nagusien ikuspegi kritikoa identifikatzeko, aztertzeko eta horien aurka egiteko. Kanpaina horren xedea komunikazio eraginkorra izaten laguntzen duten komunikazio-tresna eta gaitasun psikologikoak ematea da, eta Open Society Fundazioaren arrazismoaren eta xenofobiaren kontrako Programaren barruan garatzen da. Kultura arteko Hirien Sarean batera egiten diren ekintzen erakusgarria da.

Getxoko Udalak kultura arteko arloan duen esperientzia Eskuliburu batean jasotzen da, Pompeu Fabra Unibertsitateko Immigrazioko Diziplina arteko Ikerketa Taldearekin (GRITIM) egindako kultura arteko politikak diseinatzeko. Eskuliburu hori, Kultura arteko Hirien Sareak (RECI) eta Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen Cities kultura arteko proiektuak sortutako materialetako bat da.

Bestalde, **Euskara eta Immigrazio Zerbitzuek “Maien egutegia”** izeneko proiektua abian jarri dute. Programak talde sustatzaile bat abian jartzea eta zenbait diru-laguntza ematea aurreikusita du, euskararen eta immigrazioaren esparruekin zerikusia duten erakundeek eta elkarteek parte hartuko duten hiru proiektu bultzatzeko.

**Gizarte Zerbitzuen Sailaren** barruan partaidetza sustatzearen kasuan, gizarte-lan komunitarioarekin lotura handia du, eta eremu batzuetan egiten da (Andra Mari, Algorta-Neguri, Romo-Areeta).

**Gizarte Zerbitzuen Sailak** 2002. urtearen amaieran eta 2003. urtearen hasieran sortu zen **FEGEVOL** (Getxoko Boluntarioen Elkarte) elkarte sortzen eta sustatzen lagundu zuen, elkarrizketa bideratzeko eta erantzunean gehiegizko atomizazioa saihesteko. FEGEVOL elkarteak **SAREKIDE** izena hartu zuen 2012. urtean (Getxoko Boluntario Elkarte Elkarte). **EDE Fundazioaren** laguntzaz, gizarte-partaidetzaren ea gizarteratzearen inguruko gogoeta egin zuen 2009. urtean, Sailak, boluntarioen partaidetzaren eta sustapenaren inguruan egindako lana antolatzen.

Udalak **gogoeta estrategikoko** lan bat ere diruz lagundu zuen urte horietan (EDE Fundazioari eskatutakoa Boluntarioen bidez), FEGEVOL zer egoeratan zegoen aztertzeko eta bere jarduerara norantz bideratu nahi zuen jakiteko. Gogoeta horretan, Udalarekin harreman handiagoa izatea, Federazioa sustatzea eta sentsibilizazio-jarduerara eta -kanpaina gehiago egitea eskatu zuten.

Gaur egun, lankidetzaz hitzarmen bat du SAREKIDEREkin, eta ekimenik garrantzitsua gisa, Getxon ezartzen ari den **Elkarterri zerbitzua** aipa daiteke (bertako asoziazionismoa indartzeko programa).

**Garapenerako Lankidetzaz eta Giza Baliabideen Sailak** diru-laguntzen lerro bat du **udalerriko elkarte-egitura indartzeko** (funtzionamenduaren eta kudeaketa hobetzeko gastuak finantzatzuz).

**Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzua diagnostiko** bat egiten ari da herriko **sektore estrategikoak aurkitzeko** eta ekintza-plan bat zehazteko, udalerriko sektore horien ekonomia sustatzeko. Bestalde, inkesta bat egiten da herritarrek udalerriko eskaintza komertzialari buruz duten iritzia ezagutzeko eta beren gogobetetasun-maila jakiteko.

**Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Sailak** diagnostiko bat egin du **2012-2016 Getxo Kultura Plana** egiteko, kultur etxearen jardueraren berri bat definitzeko. Plan horretan, Getxoko elkarteek, taldeek, profesionalak eta bestelako kultura-eragileek parte hartu dute.

Azkenik, **Euskara Zerbitzua Euskararen Erabilera Biziberritzeko III. Plana** amaitzen ari da, partaidetza sustatu garatu du, zirriborroak erabiliz, edukiak ezagutaraziz eta etengabe ekarpenak eta iradokizunak jasoz, politiken normalizazioaren aldeko azken helburuan aurrera egiteko, hots, nahi duenak, udalerrian euskaraz bizitzeko aukera izan dezan.

## Partaidetza esperientziak

Administrazioaren, herritarren eta gizarte-erakundeen arteko partaidetza-esperientziak gai, eskaera eta behar jakinetarako dira. Partaidetza-esparru orokor bat diseinatzeak eta geroago ezartzeak berariazko partaidetza-tresnak eta -eremuak sortzea eskatzen du, gizarteko zenbait sektorek ere parte har dezaten.

Partaidetza-esperientzia horiek bultzatzearen eta sortzearen helburua da egon daitezkeen gabeziak arintzea, herritarrek beste eragile batzuekin, hala nola teknikariek edota bertako erakundeekin, parte hartzeko baliabideak eta tresnak abian jarri. Getxoko Udalak hainbat partaidetza-esperientzia garatu ditu.

**Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Baliabideen Sailak Getxotik Mundura, Mundutik Getxora** antolatzen du **Getxoko GGKEen Lan Taldearekin** elkarlanean. Ekimen horrek barne hartzen du **GKEen Urteko Azoka**, GKEen eta Udalaren beraren jarduerak ezagutarazteko eta lankidetzaren berezko gaiak eta harremanak ezartzeko, **hitzaldien, zine-forumen, erakusketen** eta **Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren (abenduaren 10)** bidez. **Bertso Lehiaketaren** inguruko jardura bat prestatu du, eta, horretan, **Euskara Zerbitzuak** eta **Aukera Berdintasuneko Sailak** parte hartu du. Urtero PNUDeK egindako **Giza Garapenerako Txostena** aurkezten du, partaidetzak Giza Garapenerari laguntzeko duen garrantzia erakusteko.

**Aukera Berdintasuneko Sailak** partaidetza- eta gogoeta-prozesu bat egin zuen, eta horren ondorioz, **Zainketen dekalogo** (2006) eta **Getxo Baietz Plataforma** egin ziren.

**Ingurumen Sailak** esperientzia handia du **herritarrek parte hartzeko kontzientziazio-kanpainak eta ekimenak** antolatzen (ibilbide ekologikoak, ingurumeneko gela eta abar), ikasle eta ikastetxeekin. **Bidegorrien planean** Udalaren zenbait sailek parte hartu zuten, eta Ingurumen Foroak ekarpenak eta iradokizunak egin zituen.

**Gazte Zerbitzuak** partaidetza-prozesu bat egin zuen **Gaztelekuaren** eremuak, oinarriko funtzionamenduarauak, zerbitzuak eta jarduerak banatzeko eta haien diseinua finkatzeko. Bestalde, urtero, **Wanted ideia lehiaketa** antolatzen du, finantzazio, aholkularitza tekniko eta orientazio falta izateagatik, aurrera eramateko zailtasunak dituzten gazteek garatutako proiektuak abian jar daitezela laguntzeko. Azken edizio honetan aurkeztutako eta saritutako proiektuetako bat **Getxo Berpiztu!** proiektua izan zen. Horren bidez, utzitako orube batek etorkizunean aisialdirako izan ditzakeen erabilerak zehazten dira auzokoekin batera. Zerbitzuak **bekak** ematen dizkie **DBHko ikasleei**, ikastetxetan dauden **informazio-panelak kudeatzeko**.

**Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondare Sailak** udalerriko **ekipamendu publikoak, plazak eta parkeak aldatzeko eta berritzeko** proiektuekin lotutako zenbait partaidetza-prozesu egin ditu.

Prozesu horien xedea da herritarrek hurbil dituzten eremuak eta ekipamenduak diseinatzen parte har dezaten sustatzea, getxoztarren belaunaldien arteko bizikidetzaren eta harremanaren susta ditzaten. Kalitatezko eremuak eta ekipamenduak hain zuzen ere, herritarreko egindako proposamenak eta iradokizunak kontuan hartuz. Topatzeko eremu eroso eta irisgarriak izango dira, pertsonen parte ditzaten eta harremanetan jar daitezela.

**Maidagan** eta **Malakate** parkeak (Getxo-Andra Mari), **Txabarri Zuazo** parkea (Romo), **La Borobia**, **Aldapa**, **Iturgitxi** eta **Obispo Etxeandia** parkeak (Algorta), **Gernika** parkea (Neguri), **Algortako Geltoki Plaza**, eremuko merkataritzarekin eta ostalaritzarekin alderatuta, edota **Ollartxeko** errepidearen berrikuntza dira hasierako proposamenaren aurretik ikusgai jarri diren proiektuetako batzuk, herritarrek beren iritzia eman dezaten.

Herritarrekin eta parte hartutako eragileekin sozializazio-lan handia egin da bereziki garrantzitsuak diren proiektu batzuetan, hala nola **Getxo Antzokia**, **Algortako Musika Eskola** eta **Romoko Kultur Etxea**, **aurkezpen publikoen eta erakusketen bidez**.

**Getxo Antzokiaren** proiekturako inguruko auzokoen iritzia kontuan hartu da hainbat alditan (**3 aldiz** alkatearekin eta **20 bilera** baino gehiago Hirigintza saileko zinegotziarekin eta udaleko arkitektoarekin). **Lau erakusketa** egin dira herritarrentzat, eta **bilera bat** gizarte- eta kultura-elkarteekin. Topaketa horietatik ekarpenak atera dira eta urteko proiektuan barne hartu dira (hala nola eraikinaren diseinua, atzeko partean igo dena, hurbil dauden etxeen eguzkiak jotzeko eremua handitzeko eta plazaren eremua ere handitzeko). Bestalde, udaleko taldeko politikoei hainbat alditan azaldu zaie, eta osoko bilkurak egin dituzte hirigintzaren egokitasuna, bolumetria, eraikigarritasuna eta bestelako gaiak eztabaidatzeko. Horrez gain, gizarte-ordezkariek osatutako **Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeak** gehiengo handiarekin onartu du.

**Romoko Kultur Etxearen** proiektuaren kasuan, Getxoko kultura- eta gizarte-arloetako etorkizuna bideratuko duen ekipamendua denez, sortzen hasi zenetik ezinbestekotzat jo dute harekin zuzenean lotutako gizarte-eragileak sartzea. Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek hautatutako arkitekto eta adituen **Aholku Batzorde** batek aho batez aukeratzen du esleitutako proiektua.

Gobernu Batzordeak udalerriko elkarteetarako eta udalerriko kultura-eremuko erakundeetarako eta herritarrentzako **partaidetza-prozesu** bat abian jarri zuen, zenbait ekimenaren bidez garatuz:

- ✓ Lau **informazio-jardunaldi** auzoko eta elkarteekin, zerbitzuak eta etorkizuneko zentroak izango dituen eremuen funtzionaltasuna ezagutarazteko; beren iritziak eta ikuspegia jakiteko eta beren jarduerekin lotuta dauden beharrak zuzenean ezagutzeko, dauden aukeren artean, erantzuna emateko modua azter eta bila dezaten.
- ✓ **Proiektuaren hiru erakusketa**, Gobelako kiroldegian, Santa Eugeniako antzinako eskoletan eta Getxolandian. Azken horretara 3.000 lagun bertaratu ziren.
- ✓ Romoko etxeetatik eta atarrietatik hamar **gutun edo abisu** baino gehiago banatu dira, eta, zenbait kasutan, Areetako auzokoen etxeen artean ere bai.
- ✓ **Auzokoen erkidegoetako ordezkariekin eta** eraikinaren inguruan dauden **saltokien jabeekin zuzenean eta telefonoz jarri dira harremanetan.**
- ✓ Zenbait **informazio-ohar** bidali dira **komunikabideetara**, proiektuarekin zerikusia duten ekimenak azaltzeko, herritarrek jakin ditzaten. **Informazio-liburuxka** bat argitaratu zen proiektuari buruz, eta Romoko auzoan eta Areetan banatu zen.
- ✓ **Zuzenean jarri dira harremanetan**, gutun edo oharren bidez, lanen prozeduraren berri emateko. Esaterako, eraikinen eta etxebizitza bakoitzaren egoera baloratzeko txosten bat egiteko zerbitzua ere jarri da inguruko auzokoen eskura. Profesional aditu batek egindako ebaluazio- eta egiaztatze-azterketa tekniko bat egin da, borondatez. Notario batek horren akta egiten du, higiezinaren hasierako egoera zein den jasota gera dadin, inguru horretan lanak hasi baino lehen.

Horiek guztiek eraikuntza-lanak egiten diren bitartean aktibo jarraitzen dute. Gainera, beharrezkoak badira, beste ekimen batzuk ere egingo dira, proiektuaren garapenaren eta etorkizuneko azpiegituran emango diren zerbitzuen berri emateko.

**Bidegorrien Plana** udalerriko zenbait ikastetxeetan azaldu zuten, iradokizunak jasotzeko.

**Telefonia mugikorreko oinarrizko estazioen lan-talde bat** sortu da, telefono mugikorreko oinarrizko estazioak direla eta sortutako gaiez aritzeko. Gobernu taldeak, udaleko alderdi politiko guztiek, “Antena No” elkarteak eta telefonia-operadoreetako ordezkariak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, FEMP, EUDELeke kideek eta Eusko Jauriaritzako Ingurumen Sailak osatzen dute.

**Gizarte Zerbitzuen Sailak Getxoko boluntarioen topaketak** antolatzen ditu 1994. urtetik. Topaketa horiek Boluntarioaren Egunaren ingurukoak dira (abendua 5ean), eta haien helburua da boluntarioentzako eta udalerriko herritarrentzat oro har foro ireki bat sortzea. Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan aritzen diren erakundeek egiten duten lanaren berri ematea da xedea, boluntarioen esparruan sor daitezkeen nobedadeak eta aurrerapenak ezagutu ditzaten, erkidegoko beste erakunde eta eragile batzuek ere parte hartuz, eta boluntarioek Getxoko udalerrien egiten duten lana gorestea. Horretarako, urteko elkarerik onenaren saria eta urteko boluntariorik onenaren saria banatzen dira.

Sail beretik **partaidetza-prozesu bat** egin dute, **lokalen erabileren oinarri arautzaileak berrikusteko**, **Txabarri-Zuazo Parkeko boluntarioen lokal berrietan** ikusi dituzten desorekak arintzeko (Boluntari elkartearen laguntzaz). Prozesu horren amaieran, dokumentu-proposamen bat egin zen eta Udalak geroago onartu zuen.

**Lankidetzak-hitzarmenak** ditu **Romoko eta Andra Mariko Nagusien Etxeak** kudeatzeko, bien garatzen dituzten jardueren eta lan-taldeen arteko lankidetzak eta koordinazioa sustatuz eta bideratuz. **Atsedeen Zerbitzua** abian jarri du. Programa pilotua da, zaintzaileei erantzuna emateko, izan ere, erabiltzaileen ekarpenak kontuan hartuko dira, jarraituko duten ala ez erabakitzeko. Horrez gain, **esku-hartze** lana ere egiten du ikastetxeetan eta osasun zentroetan erakundeekin eta erabiltzaileekin parte hartzea ekartzen duten **berariazko arazoetan**.

**Droga-mendekotasunak prebenitzeko zerbitzuak** etengabe lan egiten du udalerriko ikastetxeetan, eta gurasoen elkarrekin ere parte hartzen dute (lankidetzaz-hitzarmen bidez) zentroetarako hezkuntza-programaren edukiak egiten. Duten interesagatik nabarmentzen dira laguntza-baliabideen barruan garatutako programa hauek: Lehen Hezkuntzaren kasuan, **Osasunkume, Bizitzaren abentura, En la huerta con mis amigos - Lagunekin baratzean**, Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren kasuan, **Irudi biziak** eta abar.

**Immigrazio eta Kultura arteko zerbitzuak** zenbait eztabaida- eta partaidetza-leku sortu ditu **Getxoko Etorkinen Plataformarekin** batera, herritarrei entzuteko jarduerak gisa (**I World Kafea immigrazioari buruzko bizipenekin Getxoko udalerrian, Ikasle etorkinek Hezkuntza Sistemaren duten egoerari buruzko I. etorkizuneko tailerra eta Immigrazioaren inguruko irudi, hautemate eta jarrerari buruzko II. etorkizuneko tailerra**). Horrez gain, zuzeneko informazio-ekintzak garatu ditu (Cáritas Bizkaia-aren laguntzaz) eta baita bertako komunikabideetan ere (Getxoberri eta web-orrian), atzerriko pertsonak azken udal hauteskundeetan boto-erabileraz baliatu daitezkeen.

**Euskara Zerbitzuak** zuzenean lan egiten du talde eta elkarrekin hainbat ekimen eta kanpaina garatzen. Horietan, herritarren laguntza eta inplikazioa izaten du (**GEHI, Getxoko autoeskolak euskaraz, Eroan euskaraz!, elebitasuna bultzatzeko kanpaina, Euskara merkataritzara eta abar**), eta euskararen aldeko jardunaldietan eta **Euskararen Nazioarteko Egunerako** antolaketetan ere laguntzen dute herritarrek (**Kultur Etxearen** laguntzaz). **Lankidetzaz-hitzarmenak** ditu eta hainbat jardura eta proiektu garatzen ditu **Bizarra Lepoan** elkarrekin, **Egizu** elkarrekin (haren kidea ere bada, koordinazio-lanak egiten), udal euskaltegiekin eta euskararen alde lan egiten duten gainerako elkarrekin, zenbait proiektu garatuz (**Berbalaguna, Sendi, Irakurzaleen Txokoa, Gazte Saltsa** eta abar), **Algortako Bertsolari Eskolarekin (ALBE)** eta **kultura, kirol eta merkataritza elkarrekin**.

Zerbitzu honek, urtero, **Euskara Saria** ematen du, euskara erabilera sustatzeko, hedatzeko edo laguntzeko jarduerak garatzen nabarmendu diren pertsonen edo erakundeen lana goraipatzeko. Aurkeztutako hautagaietatik Euskararen Aholku Batzordeak hiru aukeratzen ditu, eta Alkatetzari aurkezten diote bat aukera dezan.

**Jaiak eta Euskara Zerbitzua** beste kultura- eta dantza-talde batzuekin aritzen dira lanean, eta xede horretarako sortu diren Batzordeetan, **Olentzero** antolatzen.

**Kultur Etxeak** aldizka bilerak egiten ditu eta etengabeko harreman zuzena du udalerriko kultura-jarduerak sustatzen dituzten elkarrekin (**Herriko Abesbatzak, Dantza akademia, inauteriak, Erregeen Kabalgata** eta abar) eta urtero sari bat banatzen du (**Haize Saria**). Horretarako, adituen epaimahaia baten iritzia kontuan hartzen du, geroago Alkatetzari aukeraturakoaren izena emateko.

**Getxo Kirolak** elkarrekin zenbait kirol klubetan esku uzten du udalaren ekipamendu jakin batzuk **zuzenean kudea** ditzaten, hala nola Getxo Arraun (arraun pabiloia), La Cantera Skate Eskola (Arrigunagako skate park) eta Getxoko Abrako Kirol Portuko Armadore eta Patroien Elkarte ORZA. Horrez gain, errugbiko, saskibaloiko, futboleko eta patinaje artistikoko kirol eskolak ere baditu. Zenbait **eztabaida talde** ere antolatu ditu (esaterako, padel pistak erreserbatzeko sistemarako).

Horrez gain, **aldizka bilerak** egiten dira **auzokoan erkidegoekin**, gai puntualak aztertzeko, eta **bilera pertsonalak** Alkatearekin eta zinegotziekin, auzokoek hala eskatzen dutenean.

**Getxoko Udal Egoitzak urteko bilerak** egiten ditu solairu bakoitzeko **senide eta egoiliarrekin**, egoiliarren, senideen, Presidentearen eta egoitzako sailtako profesionalen artean talde-harreman ezar dadin.

## 5. Informazio-sistema eraginkorra eta dinamikoa

Getxok aurrerapen nabariak izan ditu informazio- eta komunikazio-kanalen optimizazioan. Horrela, udalaren kudeaketari buruzko informazioa herritarrei hurbiltzeko interes orokorrari erantzun zaio. Udalerrian eragiten duen informazio hobea eta askotarikoa, egiazko komunikazio- eta informazio-bide arina ezartzeko, eta biztanleen oinarritzko beharrak eta behar zehatzak asetzeko. Horri esker, berehalakotasuna eta hurbiltasuna lortzen dira.

Komunikazio-tresna horien hobekuntzak eta egokitzapenak, udalbatzak hartzen dituen erabakiak modu zuzenagoan jaso eta igortzeko aukera emateaz gain, udalerrian dauden partaidetza-eremu eta -tresna guztiei balioa ere ematen die.

Horrenbestez, Udalaren eta herritarren arteko harreman hurbilagoa lortzen da, eta erantzukizunak partekatzen dira, udalaren kudeaketa hobe dadin.

## Informazio- eta komunikazio-tresnak

Informazio- eta komunikazio-tresnak dira Getxoko Udalaren eta herritarren artean harreman eraginkorra izateko bidea bideratzen dutenak, horrela, kudeaketa publikoa haien behar, arazo eta arduetara egokitzen laguntzeko.

Sail guztiak etengabeko entzuteko jarrera dute **Abisu, Kexa eta Iradokizunen Zerbitzuaren** bidez.

**Komunikazio Arloa erakundeak gizarte-sareetan egoteaz** arduratzen da (Facebook: <https://www.facebook.com/pages/Getxoko-Udala-Ayuntamiento-de-Getxo/239882642753806>, Twitter: @getxoweb), eta kanal propioa du Youtuben: <http://www.youtube.com/user/getxokoudala>). Halaber, **Getxoberri** argitaratzen du, astero, udalerriarekin zerikusia duten mota guztietako berriekin. Argitalpen horretan, alderdi politikoek ere parte hartzen dute, hilean bitan, eta urtean hogeita bi alditan.

Gogobetetasun-inkestetan eztabaidatzen diren gaien barruan, udalaren kanalak, baliabideak edo tresnak baloratzeko bloke bat dago, informazioa helarazteko eta haren eraginkortasuna alderatzeko. Horrez gain, hilean bitan, udalaren telefonozko arreta ebaluatzen da “mystery shopper” teknikariarekin.

Udalak “**GETXO GERTU**” herritarren informazio guneak ezarri dute **Ekonomia Sustapen Sailaren** bidez. Zerbitzu horrek, Google Mapsen geoposizionamendu-tresna baten bidez, Getxoko zenbait saltokitako, ostatu eta zerbitzuetako kokapena kontsultatzeko aukera ematen die erabiltzaileei, eta bilaketa merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu jardueraren arabera egiten du. Saltokiaren izena zuzenean ere bila daiteke. Aukeratutako saltokiaren informazioa posta elektronikoz edo SMS bidez jaso daiteke edozein smartphonetan. SMS horretan, eskatutako saltokiaren oinarriko datuak eta kontsulta egiten den lekutik saltokira joateko jarraitu beharreko bidea jasotzen dira.

**Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondare Sailak Herritarren Arretarako berariazko Bulegoa eta Lanetarako zuzeneko telefono** bat ditu, herritarrekin harreman zuzenagoa izateko.

**Babes Zibileko Sailak** larrialdietan aritzen diren boluntarioen elkarteekin eta une jakin batean Babes Zibilarekin lagun dezaketen taldeekin bilerak egiten ditu aldizka, eta ekitaldiak eremu publikoan egiten dituzten erakundeekin etengabe dago harremanetan.

**Aukera Berdintasuneko Sailak Emeki aldizkaria** argitaratzen du, eta bere webgunea du. Bestalde, profil eta Fanpage bat du Facebooken (**Berdintasuna Getxo**).

**Immigrazio eta Kultura arteko Zerbitzuak taldeko informazio-saioak** antolatzen ditu **atzeritarren esparru juridikoari buruz**, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Biltzen Integrazioa eta Bizikidetzaren Zerbitzuaren laguntza du. Saio horiek, atzeritarrentzat eta atzeritarrekin loturak dituzten (senideak dituztelako, lan-harremanak eta abar) eta atzeritarren inguruko informazioa eskatzen duten Estatuko pertsonentzat dira. Bestalde, bere **webgunea** du eta profil eta **Fanpage** bat du **Facebooken**. Bestalde, udalerriko baliabideen bidez sortu du ([www.KaixoGetxo.net](http://www.KaixoGetxo.net)), askotariko baliabideei buruzko informazioa kontsultatzeko.

**Babes Zibileko Sailak** jakinarazpenak bidaltzen dizkie etengabe herritarrei prebentzio-neurriei, alertei, aholkuei eta bestelakoei buruz. Bi sentsibilizazio-kanpaina garatzen ari da webaren bidez, kontrako fenomeno meteorologikoei eta etxeko segurtasunari buruz. Horrez gain, bide publikoan ekitaldi bat egiteko jarraitu beharreko prozedurei buruzko informazioa ematen du web-orriaren atal batean.



**Droga-mendekotasunak prebenitzeko zerbitzuak Seme-alabak** aldizkaria argitaratzen du sei hilez behin, eta, horrekin, gurasoen eskoletako prestakuntza-jarduerak osatu nahi dira, Getxoko familien artean elkarrizketarako eta esperientziak trukatzeko bitarteko bat erabiliz; aldi berean, familien partaidetza dinamizatu nahi da.

**Euskara Zerbitzuak lankidetzahitzarmen** bat sinatuta du, **UK aldizkaria** argitaratzen laguntzeko. Aldizkari horren helburua Getxoko eta Uribe Kostako euskaldun guztientzat erreferentziako komunikabidea izatea eta eremuko eguneroko bizitza eta memoria islatzea da.

**Gazteria Zerbitzuak** hileroko **Gaz-teak** argitaratzen du. **Musika Eskola Digitala** hileroko argitaratzen den aldizkaria da, eta Getxoko “Andres Isasi” Musika Eskolarekin zerikusia duten berriak argitaratzen dira. **Getxoko Kultur Etxeak** hileroko **GK** aldizkaria argitaratzen du, eta udalerrian egiten diren kultura-jardueren berri ematen du. Halaber, **Getxo Antzokia** eta **Romo Kultur Etxea** ere argitaratzen dira. Aldizkari horietan, Getxo Antzokiaren eta Romo Kultur Etxearen eraikuntzarekin zerikusia duten jardueren buruzko informazioa ematen da.

## 6. Kanpoaldera begiratzen duen Udala: Interdependentzia

Getxok berrikuntzaren, lehiakortasunaren eta ikaskuntza iraunkorraren aldeko apustua eginez egiten die aurre garai berri hauei. Horrela, mundu globalizatu eta interdependente batean, partekatutako topaleku eta lan-eremu guztietan laguntzeko eta parte hartzeko eskaintzen du bere burua, bere gaitasunak handitzeko aukera izan dezan, nortasunari eta erroei uko egin gabe. Herri sortzaile eta teknologikoa da, eta integrazioa, gardentasuna, aniztasuna eta gizarte-kohesioa dira udalerrri solidario, lehiakor, aditu eta berritzaile bihurtzen duten balioak. Getxoko Udala beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko eta sareko lana egiteko prest dagoela erakusten duten zenbait adibide ditugu hauek:

Getxoko Udala **Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareko** kidea da, eta horren helburua, udalei gardentasunean hasteko edo aurrera egiteko zer urratsei jarraitu behar dieten erakustea da. Horretarako, jardunbide egokiak aztertzeko, guztien diagnostikoa eta metodologia diseinatzeko eta tresnak egiteko talde-dinamikak egiten dira, geroago udalaren gardentasunerako ekintzak abian jartzeko.

**Kalitatea eta Informazio Sistemen Saileko Kalitate Unitatea Q-EPEA Erakunde Publiko Nagusien** kidea da. Q-EPEA kudeaketan bikaintasuna bilatzen duten Euskadiko erakunde publikoen talde batez (Euskadiko kudeaketan aurrerapen-mailarik handiena duten 25 erakunde publikoetz) osatuta dago, gure erakundeek kudeaketa hobe dadin, partekatutako ikaskuntzaren bidez, eta euskal administrazio publikoan bikaintasuna susta dezaten. Horrez gain, Garapenak sustatutako **TBAko** (Tokiko Berrikuntza Agenda) **Batzorde Teknikoko** kidea da, eta esperientzia pilotu batena parte hartu zuen AENOREkin lankidetzan, bertako administrazioetan IWA4 metodologia garatzeko eta doitzeko.

**Getxolan Garapen** elkartean dago (Euskadiko tokiko erakundeez osatutako garapen-agentziak biltzen dituen elkarte profesionala), eta haren barruan sortu diren organo, batzorde eta foroetan parte hartzen du erregulartasunez. Beste agentzia batzuekin parte hartzen du Europako proiektu batean (**Valora proiektua**), eta bere helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan lanaren antolaketari eta enpresa-kudeaketari buruzko aholkularitza, sentsibilizazioa eta hedapena sustatzea.

**Getxo Turismo SICTED** sistemaren barruan dago (Helmuetako Turismo Kalitaterako Sistema Integrala), eta **Turismo-kalitaterako Orekin, Eusko Jaurlaritzako Turismoaren Euskal Agentziarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin** lankidetzan aritzen da. Bestalde, **kostaldeko beste 12 udalarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin Bizkaia Kostaldea** elkartekoa da.

**Getxo Kirolak Innobasquek** sustatutako lan-sareetan dago eta hainbat proiektu berritzailetan parte hartu du Osakidetza, Tecnalia eta Innobasque enpresekin: **Gozagun** (jarduera fisikoa sustatzeko, elikatzeko ohiturak eta adimen emozionalaren garapenean lan egiteko proiektua) eta **Aktivate** (kirolaren bidez gaitasun sozio-emozionalak eskuratzea).

**Aukera Berdintasuneko Saila Berdinsarearen eta Ahalduntze Eskolen Sarean** dago, eta EUDEL buru dela, **Berdintasuneko Erakunde arteko Batzorde Politiko eta Teknikoetan** parte hartzen du. Batzorde horietan Emakunde, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza ere badaude. Bestalde, **EUDELen Berdintasuneko Batzorde Politiko eta Teknikoan eta Sahararen aldeko Euskal Sarean** parte hartzen du (Ahalduntze Eskolek eta beste udal batzuek, EUDELe, Emakundek, Euskal Fondoak, Berdintasun Batzordeek, Sahararen aldeko Elkarleak eta Ahalduntze Eskoletako ikasleek bultzatutakoa).

**Immigrazio eta Kultura arteko Zerbitzuak Zurrumurruekin kontrako sarean** lan egiten du **Eusko Jaurlaritzarekin, Begirunerekin eta Harresiak Apurtuz** elkartarekin. Immigrazioaren inguruko zurrumurruekin kontra borrokatzeko eta horiek prebenitzeko sistema da. Halaber, **EUDELekin** elkarlanean aritu da, eta hasiera batean Eusko Jaurlaritzarekin, hitzarmen bat sortzeko lan-talde batean, errotze-txosnak eta etxebizitza izateko aukerei buruzko txostenak egiteko. Horrez gain, lan bat ere garatu du **Eusko Jaurlaritzako Ordezkariordearekin** erabiltzaileak **Auzolan gizarteratze eta laneratze programetan** errazago sar daitezten. Programa horiek, udalaren kontratazioa ekartzen zuten. Bestalde, **etorkinak hartzeko udal sarean eta Kultura arteko Hirien sarean (RECI)** parte hartzen du, sare horretan, Bartzelona, Zaragoza, Parla, Cartagena, Fuenlabrada, Hospitalet eta Donostia ere daudela. **Kultura arteko Hirien Europako Sarean** (Europako Batzordearen eta Europar Batasunaren programa) eta Europako Batzordearen ikerketa-proiektuarekin lotutako **Amicall** lan-eremu batean ere badago. Hor, **Unibertsitate Konplutenseak eta Cambridge, Padua, Rotterdam eta Berlingo Unibertsitateak** ere parte hartzen

dute, herritarren partaidetzan gertatzen den sensibilizazioarekin eta toki mailako bazterkeriaren **prebenitzearekin** zerikusia duten alderdietan lan eginez..

**Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria sailaren** mendekoa den **Hezkuntza Zerbitzuak Eskola Kontseiluetan** parte hartzen du. Aldizka bilerak egiten ditu ikastetxe guztiekin eta zinegotzi batekin eskolaz kanpoko jarduerari, eraikinen konponketei eta bestelakoei buruz aritzeko. Bestalde, udalerriaz gaindiko zenbait erakundetan parte hartzen du Eusko Jaurlaritzaren Barne eta Hezkuntza sailarekin, Haurreskolak partzuergoarekin eta beste udal batzuekin.

**Lankidetzaren eta Giza Baliabideen Saila Euskal Fondoaren** barruan dago (Borondatezko Tokiko Euskal Erakundearen Elkarteak), eta haren Zuzendaritza Batzordea ere hango kidea da. Imanol Landa, Getxoko Alkatea, da lehendakaria. Bestalde, aldizka, **Hegoa** eta **FEMP** elkarteekin elkarlanean aritzen da, urtean zehar egiten diren Lankidetzaren Deszentralizatuari buruzko azterketa eta jardunaldietan.

				<b>Getxoko Udalaren partaidetzari buruzko memoria</b>				
	<b>Lehendakaritza</b>	<b>Ogasuna, Ekonomia Sustapena eta Giza Baliabideak</b>	<b>Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria</b>	<b>Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, Etxebizitza eta Ondarea</b>	<b>Gizarte-zerbitzuak</b>	<b>Komunikazioa, herritarren arreta eta babes zibila</b>	<b>Kirolak</b>	<b>Kalitatea eta informazio-sistemak</b>
<b>Kudeaketa-tresna</b>	Legegintza plana							Legegintza plana
<b>Iritzi-azterketak</b>		On line inkestak. Gogobetetasun-inkestak.	Inkestak		Atzerriko etorkinekiko jarrerei eta iritziei buruzko azterketa. Gogobetetasun-inkestak Udal Egoitzako egoiliarrei eta senideei.		Inkestak	Gogobetetasun-inkestak. Inkesta zehatzak zerbitzu jakinetarako. Abisu, Kexa eta Iradokizunen zerbitzua.
<b>Behatokiak</b>					Immigrazioaren Tokiko Behatokia			Hiri behatokia
<b>Gardentasuna</b>	Udalen Gardentasun Indizea (UGI)				Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria			Zilarrezko Q IWA4
<b>Koordinazio-mekanismoak</b>		Udaleko lan-taldea	Udaleko lan-taldea		Udaleko lan-taldea Erosketa Publiko Etikorako taldea.	Udaleko lan-taldea	Udaleko lan-taldea Gatazka batzordea (Baketalde). Berdintasun batzordea	Zerbitzu gutunak.
<b>Ariko kontseiluak</b>	Berdintasun batzordea		Euskararen Aholku Batzordea	Plangintzako Aholku Batzordea				

<b>Sektore foroak</b>	Berdintasun foroa Ingurumeneko tokiko foroa. Eskola Agenda 21 foroa.	Merkataritza Mahaia. Turismo Mahaia.	Gazte foroa. Jai Batzordea. Ikasgehi foroa.	Uholdeen Batzorde Berezia. HAPO berrikusten Batzorde Berezia.	Getxoko Etorकिन Plataforma Udal Egoitzako egoiliarren eta senideen foroa.			Lankidetzako lan-taldea. Gizarte Boluntarioen Elkarteen Taldea
<b>Planak, programak eta proiektuak</b>	Berdintasun plana. Ahalduntze eskola. Kultura arteko elkarriketak. Hiri debekatuaren mapa. CEDEMOS proiektua.	Getxo Meeting Sektore estrategikoak hautemateko plana. Sektore estrategikoen ekonomia-sustapenerako Ekintza Plana.	Euskaren Erabilera Biziberritzeko Plana. “Maien egutegia” proiektua. Getxo Kultura 2012-2016.	Getxo Auzoz-Auzo Barrio a Barrio programa Hiri debekatuaren mapa HAPOren berrikustea	Elkarterri elkarteak indartzeko programa. SAREKIDE. Elkarteen egitura indartzeko diru-laguntza lerroa. Gure Aisia programa. “Maien egutegia” proiektua. IdentiBuzz. Bilerak Udal Egoitzako egoiliarrekin eta senideekin.		2012-2015 Plan Estrategikoa	

<p><b>Esperientziak</b></p>	<p>Kontzientziazio kanpainak Parte hartzeko ekimenak</p>		<p>Wanted ideia lehiaketa. Getxo Berpiztu! Informazio-panelen kudeaketa. Euskara Saria Haize Saria GEHI. Getxoko autoeskolak euskaraz. Eroan euskaraz! Elebitasuna bultzatzeko kanpaina. Euskara merkataritzara. Euskararen nazioarteko eguna. Lankidetzahitzarmenak: Bizarra Lepoan, Egizu , Algortako Bertsolari Eskola (ALBE), kultura-, kirol- eta merkataritza-elkartek. Berbalaguna . Sendi. Irakurzaleen Txokoa.</p>	<p>Eremu publikoak berritzeko proiektuekin lotutako partaidetza-prozesuak: Maidagan, Malakate, Txabarri Zuazo, De la Borobia, Aldapa, Iturgitxi, Obispo Etxeandia, Gernika parkeak. Algortako Geltoki plaza. Ollaretxe errepidearen berrikuntza. Getxo Antzoki. Musika eskola (Algorta) Romoko Kultur Etxea  Telefonia mugikorreko oinarritzko estazioetako lantaldea.</p>	<p>Getxotik Mundura Mundutik Getxora. World Caf�e Etorkinek udalerrian izandako bizipenekin. Ikasle etorkinek Hezkuntza Sistemaren duten egoerari buruzko etorkizuneko tailerra. Immigrazioaren inguruko irudi, hautemate eta jarrerari buruzko etorkizuneko tailerra. Partaidetza-prozesua, boluntarioen lokalen erabilerak arautzen dituzten oinarriak berrikusteko. Lankidetzahitzarmenak Nagusien Etxeekin Atsedeen zerbitzua Berariazko esku-hartzeak.</p>	<p>Ekipamenduen zuzeneko kudeaketa Eztabaidataldeak</p>		<p>Getxotik Mundura Mundutik Getxora-GKEen urteko azoka. Getxoko boluntarioen topalekuak.</p>
-----------------------------	--	--	---	--	---	---	--	---

			Gazte Saltsa. Kirol- ekipamenduen zuzeneko kudeaketa		Bertso Lehiaketaren inguruko partaidetza- esperientzia.			
<b>Informazio- eta komunikazio- tresnak</b>	Emeki aldizkaria. Berdintasuna Getxo (Facebook).	GETXO GERTU	Gaz-teak aldizkaria	Herritarren Arretarako Bulegoa. Lanetarako zuzeneko telefonoa.	Getxo Entre Culturas. Kulturen Artean Getxo (Facebook). Seme-alabak	Erakundeak gizarte-sareetan (Facebook, Twitter, Youtube) Getxoberri eta		

				Getxo Antzokia aldizkaria.	aldizkaria.	sail eta gaien buletin bereziak (partaidetza- kanalak, urteko aurrekontuak). Musika aldizkaria Eskola Digitala		
<b>Sareko lankidetzak eta lana</b>	Berdinsarea. EUDELen Berdintasuneko Batzorde Politiko eta Teknikoa. Ahalduntze eskolen sarea Sahararen aldeko Euskal Sarea.	Garapen. Valora proiektua. SICTED. Turismo Kalitateko Q. Bizkaia Kostaldea Costa Vasca.			Zurrumurruen kontrako sarea. Etorkinak hartzeko udal sarea. Kultura arteko Hirien Sarea (RECI). Kultura arteko Hirien Europako Sarea. Amicall proiektua. Euskal Fondoa. Hegoarekin eta FEMPrekin lankidetzak Lankidetzak Deszentralizatuari buruzko jardunaldietan eta azterketetan.		Innobasque sarea. Gozagun proiektua. Aktivate proiektua.	Q-EPEA Bikaintasunerako Erakunde Publikoak. Gardentasunaren aldeko Udalen Sarea. Eskola Batzordeak.

Oharra: Taulak partaidetza-memoria honetan barne hartutako ekimenetan modu aktiboan parte hartzen duen edota horiek sustatzen dituen Getxoko Udalaren Saila edo Sailak adierazten dira.